



amarauna
aisialdi taldeen arteko sarea

KOMUNIKAZIO DOSSIERRA

AMARAUNA JAIALDIA: JOLASAZ HEZI KALEA BIZI

Amarauna sareak, EHko aisialdi taldeen arteko sareak, **Jolasaz hezi kalea bizi** jaialdia antolatu du Otsailak 21ean Zarautzen.

Jaialdia zergatik?

Jaialdiaren bidez Amarauna sarea ezagutarazi eta proiektua zabaldu nahi dugu.

Hezkuntza ez formalari dagokion garrantzia ematea da Amaraunaren helburu nagusietako bat. Izan ere, gaur egun hezkuntza formaletik kanpo, hau da, eskolatik kanpo garatzen den jardunari ez zaiola hezkuntz ikuspegitik daukan garrantzia ematen uste dugu. Beraz, arlo honetan egiten den lana ikusarazteaz eta baloratzeaz gain egiten dugun lana aisialdiko ekimenak izatetik haratago, hizki larriz idatzitako Hezkuntza ere badela aldarrikatu nahi dugu.

Horrez gain, Amaraunaren helburua saregintza ere bada. Bide horretan, gaur gaurkoz sarean biltzen garen talde eta elkarten arteko harremana sustatu nahi da jaialdiaren bidez, taldeetako kideak batzeko eta elkarrekin egoteko bestelako eremu bat sortuz, jai giroan.

Amarauna sareko ohiko kideak batzetik harago, aisialdian eta hezkuntza ez formalean diharduten Euskal Herriko aisialdi taldeetako edota eragileetako kideak gonbidatu nahi ditugu jaialdira, Euskal Herrian garatzen diren proiektu ezberdinen arteko harremana erraztu eta zubiak eraikitzeko asmoz. Bide honetan Euskal Herriko aisialdi mugimenduaren parte diren eragileak harremanetan jarri eta saregintza lan horretan pauso xume bat emateko aukera bat bezala irudikatzen dugu jaialdia.

Guzti honez gain, haur eta gazteak gure aisialdi ekimenen protagonistak diren heinean, ezinbestean jaialdian presente izan nahi ditugu, eta hauekin batera beraien familiak ere bai.

Zergatik JOLASAZ HEZI KALEA BIZI?

Jolasa. Jarduera liluragarria da. Hunkitu egiten gaitu. Plazerezko ekintza da eta gauzak, bidea, aurkitzen eta esperimintatzen laguntzen du. Sormen iturri da. Ume eta gaztetxoek jardun nagusia da jolastea, bizitzen ikastearen zutabe da, finean haurtzaroaren kulturaren funtsa da. Jolasa.

Jolasak gizakion garapen prozesuan garrantzi berezia badu ere, egungo jendarteak mespretxatu egiten du. Denbora galtzetat hartzen da askotan, eta zeregin garrantzitsuago edo hobeagoa ez duenak jolasten duenaren ustea dugu. Funtsezko ez den zerbaitekin eta aisialdiarekin lotzen da zuzenean, jolasa eta aisialdia, eta beraz hezkuntza ulertzeko modu oso bat, gutxietsiz.

Haur eta gazteen jarduera funtsezkoena dela ulertzen dugunez, gure jardunaren oinarria ere bada. Jolasa haurtzaroaren kulturaren funtsa eta ikasketa prozesuaren motorra da, eta ahalduz prozesurako ezinbesteko tresna dugu, mundua behatu eta harremanak sortzeko ezinbestekoa.

Aipatutako ideiak oinarri jolasak izaera hezitzailea eta eraldatzailea duela uste dugu eta jolasari dagokion balioa eman nahi diogu.

Jolasari duen balioa kentzearekin batera espazioa, lekua, ere kendu zaio. Kaletik atera da jolasa. Leku itxi eta babestuetan jolasten dira haur eta gazteak. Biziaren parte izan beharrean momentu eta leku batzuetan egin daiteken gauza gisa tratatzen dugu jolasa. Kalea berreskuratu nahi dugu beraz, jolasarentzat eta ondorioz herritarrontzat. Jolasa kalera atera beharra aldarrikatzen dugu, haur eta gazteak kalean jolastu, bizi eta hezi daitezten.

Kaleratzean jolasak irabazten duen gisa berean, kaleak berak ere irabazten du. Kalea gu garelako, herritarrak, bertan sortzen diren harremanak, komunitatea azken batean. Ikuspegi honek beraz kalea biziberritzen du eta horrekin batera heziketa balio askatzaileak plazaren erdigunean jartzeko aukera ematen digu.

Jolastuz hezi nahi dugu beraz, gure haur eta gaztetxoekin batera, kalean topo egingo dugun herritarrekin batera... kanpo eta barneko mugetatik aske izateko bideen bila darraigun bitartean!

AMARAUNA

Zer da Amarauna?

Amarauna Euskal Herrian, hezkuntza ez formalean, haur eta gaztetxoekin aisialdian, euskara eta euskal kultura ardatz izanik, balioen hezkuntza sustatzeko lan egiten dugun aisialdi talde, eragile, elkarte, edo bestelako eragileen arteko sarea da.

Sarean batzen garen elkarteak Euskal Herri euskaldun, kritiko, aske eta aktibo batean sinesten dugu. Eta horretarako lantzen dugu hezkuntza ez formalaren baitako haur eta gazteen aisialdi esparrua.

Sareak eskaintzen dituen baliabide, ekimen eta eskaintza guztiak, sareko elkarte guztien beharrak diagnostikatu eta hauek asetzera begira antolatzen ditugu, hauetako talde bakoitzak bere dinamika propioaren baitan lan egiten jarraitzen duen bitartean. Elkarrekin sarete lanak egiten duen ekarpenarekin, erraztasunak, irtenbideak eta onurak jasotzea da helburua.

Horrekin batera Amarauna sarean berau osatzen dugun talde eta elkarten arteko harremanak indartu eta hauen helburu komunak egikaritzeko beharrezko neurriak hartu eta dinamikak sortzen ditugu, indibidualetik kolektiborako jauzian proiektuak gauzatu eta errealitatea iraultzeko indar guneak sortuz, aisialdi proiektu lokalek jendartearen osotasunean eragin ahal izan dezaten.

Sarearen izaerarekin bat datozen helburu estrategikoak argi izanez, jendartea eraldatzeari begira egiten dugu eguneroko lana, modu kontzientean, belaunaldi berriekin. Ludikotasuna, sormena, inguruaren ezagutza eta parte hartze aktiboa ardatz izanik, herri eta auzoetatik Euskal Herri osora zabaltzeko balioak lantzen ditugu.

Zeintzuk dira Amaraunaren helburuak?

Norbanakoen garapena hezkuntzari loturik dagoela ulerturik eta kontzeptu hauek banaezinak direla kontuan hartuta jendartearen eraldaketa eragiteko arlo estrategiko ukalezina da hezkuntza. Baina hezkuntza terminoa modu integralean ulertu beharrezkoa da, norbanakoen hezkuntza prozesuan jendarteko eragile guztiek parte hartzen baitute.

Hezkuntza ez formala dugu gure lan esparru gisa. Arlo honetan, gure oinarri ideologikoen baitan, Euskal Herrian garatzen diren esperientziei laguntza eta harreman esparru bat eskaintzeaz gain, egiten den lana jendartearen zabaltzea hartzen dugu zeregin bezala.

Hori horrela izanik, datozenak dira Amarauna sarearen helburuak:

- Hezkuntza ez formalari dagokion garrantzia ematea
 - Arlo honetan burutzen den lana jendarteratzea
 - Instituzio ezberdinen aurrean botere eta eragin gune bat sortzea
 - Hezkuntza komunitatearekin harremana lantzea
 - Hezkuntza ez-formaletik, bertan egiten den lana errealitatera zabaltzea bertan eraginez, irauliz nahiz erakiz.
- Euskal Herriko aisialdi mugimendua harremandu eta saretzea
 - Euskal Herrian garatzen diren proiektu ezberdinen arteko harremanak erraztea
 - Taldeen artean planteamendu bateratuak aurrera ateratzeko bide izatea
 - Gure eguneroko lanaren inguruko eztabaidarako markoak ahalbidetzea
 - Horretarako, Euskal Herriko aisialdi talde ezberdinen arteko gune komunak sortzea, fisikoak nahiz birtualak.
- Aisialdi hezitzailean balio askatzaileetan oinarritutako hezkuntza sustatzea.

Helburuen baitan aipatutako balioen hezkuntza hori oinarri ideologiko hauen baitan ulertzen dugunok elkartzen gaituen sarea da Amarauna:

- Euskaran eta Euskal Herrian eragile

Euskara da gure hizkuntza eta gure izaeraren parte den hizkuntza gutxitua denez uneoro sustatzen dugu bere ezagutza eta erabilera. Amarauna sareko kide guztiok euskaraz egiten dugu lan haur eta gazteen aisialdian eraginez gure hizkuntzaren normalizazioa lortu asmoz.

Amaraunak bi ildo bereizten ditu herrigintzan. Batetik maila lokalean, herri eta auzoetan egiten dugu lan, herri eta auzoetako gainerako elkarteekin batera herri mugimendua osatu eta herritarren esku hartze zuzena bilatzen dugu. Bestetik, Euskal Herri mailan osatzen dugun kolektibo hori oinarri hartuta ikuspegi horretan egiten ditugun ekarpenak nazio eraikuntzaren eta jendarte eraldaketaren bidean kokatzen gaitu. Errealitatea eraldatzen ari gara txikitasunetik ekinda.

- Euskal kulturaren sustatzailea. Gure egitekoa da euskal kultura ezagutu, ezagutarazi eta babestea
- Aisialdi hezitzailean zein balioen hezkuntzan oinarritua

Balio askatzaileetan hezi nahi dugu, hezkuntza pertsonen garapenean etenik ez duen prozesu bezala ulertuta. Gaur egungo gizarte sistema kapitalista eta patriarkal honek sustatzen dituen, individualismoa, zapalkuntza, lehiakortasuna eta kontsumoa bezalako balioetatik askatuz, pertsona autonomo eta aske gisa heziko gaituzten balioak ditugu lan tresna eta helburu, uneoro hauek lantzen eta transmititzen baitihardugu. Hauen garrantzia azpimarratzen, argudiatzen eta hauetan hezten. Jendarte aktibo, parekide, kritiko eta justu batean bizi nahi dugu.

Nola sortu zen Amarauna?

Bizkaiko Urtxintxa eskolaren baitan sortutako proiektua izan zen sorreran. Aisialdi talde ezberdinen arteko ezagutza eta elkarlana sustatzea eta eskolako hezitzaile berriak herrigintzako proiektuen adibideekin heztearen zuten helburu. Horren haritik, sarean biltzen ziren elkartearen arteko harreman iraunkor bat mantentzea lortu zen.

Gerora 2010. urtean, Amarauna proiektuaren inguruko hausnarketa egin zen. Bertan, egitasmoak zituen ezaugarri eraginkor eta esanguratsuak kontuan hartu ziren eta Euskal Herriko errealitatearen gaineko diagnostikoan oinarrituta Amarauna elkartearen arteko sare

bezala definitu zen.

Nork osatzen du Amarauna?

Amarauna sare irekia eta parte hartzailea da eta Euskal Herriko hainbat aisialdi talde batzen gara. Gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeek osatzen dugu. Horrez gain, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan jarduten duen UdaLeku elkartearekin ere harreman zuzena dauka Amaraunak, nahiz eta, gainerako taldeekin alderatuta errealitatea ezberdina den eta horregatik sarean momentuz ez dauden. Nafarroan jarduten duen eragileen presentzian hutsune nabarmena, nahiz herrialde desberdinen arabera kide kopuruen arteko desorekaz jakitun izan, esperientziak sareak dakarkigun potentzialitatea ardatz hartuta, xumetasunetik harremanak sustatzen jarraitzen dugu. Bide horretan, Amarauna sarearen oinarriekin eta ekarpenarekin bat egin eta esperientzian parte hartu nahi duen Euskal Herriko edozein aisialdi talde, eragile zein elkarte saretera animatu nahi da.

Gaur gaurkoz, hurrengoak gara sarea osatzen dugun talde eta elkarteak:

Araba: Kimuak-atarrabi (Gasteiz), Kirikiño (Laudio)

Bizkaia: Gazte Alai (Deustu), Intxorta (Elorrio), Kar-Kabia (Lekeitio), Kimuak (Iurreta), Marixurrike (Atxondo), Txantxiku (Deustu), Urtxintxa (Bizkaia), Xat (Markina-Xemein), Ximelgorri (Santutxu), Zaztaparrak (Arratia), Txirimorraski (Ondarru)

Gipuzkoa: Kukumixo (Soraluze), Txipristin (Zarautz), Hara!no (Donostia), Txatxilipurdi (Arrasate)

Euskal Herria: Euskal Udalekuetako Goñiko Etxea

Amarauna sarera batu nahi duten aisialdi taldeek www.amarauna.info atarian eskuragarri dagoen galdetegia bete besterik ez dute edo bestela amaraunasarea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali.

EGITARAUA

Noiz: Otsailak 21

Non: Zarautzen

Egitaraua:

12:00eta

- Txupinazoa
- Gunearen irekitzea eta azalpena
- Irrien Lagunak ikuskizuna

14:00 Bazkaria

16:00

- Bertso-show
- Umeentzako ipuin kontalaria

17:30 Erromeria

Egunean zehar txoko ezberdinak egongo dira gunean:

- Jolas gunea
- Azoka gunea

- Puzgarrien gunea
- Tailarren gunea

19:00 Kalejira

21:00 Kontzertuak Putzuzulo gaztetxean

- Uluka
- Pixontxis
- Bidelapurrak
- Atxurre

Ondoren karaokea

**Egitaraua ez da guztiz zehatza, aurrerago zehaztasun gehiago*

***Gunea non izango den aurrerago zehaztuko da*

ARGIBIDE PRAKTIKOAK

**Atal hau aurrerago zehaztuko da*

BITARTEKOA

**Atal hau aurrerago zehaztuko da*

HARREMANETARAKO

Web orrialdea: www.amarauna.info

Twitterra: @AmarauaSarea

Email helbidea: amaraunasarea@gmail.com

Telefonoa: 650172537 (Irati)